



BALOREZKO PROPOSAMENA

ELEKTROLINERA

Gaur egun, kutsadura-iturri handienetako bat erregaiak dira; beraz, gasolina-autoek gehiegi kutsatzen dute. Auto elektrikoek, aldiz, zero emisio sortzen dituzte zirkulatu duten bitartean. Ez dute karbono dioxidorik (CO₂), karbono monoxidorik (CO), nitrogeno oxidorik (NOx) ezta partikula esekirik isurtzen ere. Are gehiago, ihes-hodirik ere ez dute, ez dute behar. Horregatik, auto elektrikoen merkatua eboluzionatzea erabaki dugu.



Hala ere, auto elektriko horiek denbora asko behar dute % 100ean kargatzeko, eta, beraz, ez dira oso bidaia luzeak egiteko gai. Gure proiektuari esker, alegia, karga azkarra eta haririk gabeko kargadorea, askoz ere denbora gutxiagoan eta edonon kargatzeko aukera izango dugu. Lehen aipatu dugun moduan eta gure proiektua dela eta, kotxe elektrikoen merkatua asko eboluzionatuko dela ondoriozta dezakegu.

Lehen aipatu dugun bezala, merkatu hori gero eta gehiago ari da aldatzen, eta Europako Kontseiluek, Euroganberek eta Europako Batzordeek erabaki dute 2035etik aurrera ez dela errekuntza-auto gehiago salduko, berotegi-efektuarekiko kezka handia dagoelako. Horregatik, hobekuntza bat eskaintzen diegu auto elektriko horiei, erosleek ez dezaten kezkatu ez kargatzeko lekuaz, ez autoa kargatzeko behar duten denboraz. Ondorioz, auto elektrikoen salerosketa beharrezkoa eta nahitaezkoa izango da urte batzuk barru.

Argi dago, beraz, gure proiektuaren ideia kotxe elektrikoen arazo larrienak konpondu egingo dituztela, eta aldi berean, kutsaduraren arazoa txikituko litzateke.

<https://amp.elmundo.es/motor/2022/10/28/635b226bfc6c83835c8b45d7.html>